

Hezkuntza ispilu

Joxean Agirre

Gogora dezagun «Buesa legearen» garaia. Ikastolek prestigioa zuten: Euskal Herri mailako egitura bat, ikasmaterial propioak zituzten eta euskararen erabilerari zegokionez edo aisialdia edo ingelesa, edo heziketa fisikoa bezalako arloetan proiektu oso interesgarriak garatzen ari ziren. Eta, garrantzitsua dena, diru funts propioa zuten beharrean ziren ikastolei laguntzeko. Prestigio horri esker bereziki Gipuzkoako herri batzuetan eskola publikoak irenstera iritsi ziren.

Garaiko zurrumurruek arabera, Madrilen alarmak piztu ziren. Hamar bat urteren buruan lurralde honetan ikastolen sarea jaun eta jabe izatera iritsi zitekeela ikusten omen zuten eta beldur ziren horrek arraste efektuaren bat ekarriko ote zuen beste lurraldeetan.

Fernando Buesa sailburuak hartu zuen bere gain egoera hori iraultzeko konpromisoa. Horrela jaio zen Euskal Eskola Publikoaren Legea, euskal gizartearen elkarbizitzari sekulako kalteak eragin zituzkiona, eta zauri sendaezinak utzi zituen. Ikastola andana bat publikatu zen. Horretarako, irakasleei funtzionario izateko aukera eskaini zitzaizen eta titulu gabeei erraztasun guztiak eman zitzaizkien egoera normalizatzeko.

Modu sinple batean esateko, bi estrategien arteko talka izan zen: euskal erai-kuntza nazionalarena batetik eta espainiar estatuaren kohesioarena bestetik. Badakit lege berriarekin ez dela horrelakorik gertatuko. Badakit eraikuntza nazionalaren sare publikoak ere parte hartu behar duela, baina harrigarria egiten zait nola sektoreko sindikatu batzuek

eta ezkerreko alderdi zenbaitek garaiko mamu berekin edo bertsoekin jarraitzen duten.

Hezkuntza ispilu bat da, non sindikatu eta alderdiek naziotasunari buruzko irudia islatzen duten. Zer gertatuko zen baldin eta 91ko legeak bilakaera eten ez balu? Sare hori ez ote zen izango Elkarrekin Ahal Duguk proposatzen duen sarea bezain publikoa? Edo publikoa izateko derrigor estatala izan behar du? Edo ezin da titularitate partekaturik onartu?

Eskola baten indarra komunitatean eta inplikazioan baitago eta inplikatzeko zer hoberik proiektuan partaidetza zuzena izatea baino?

Hitz batean: ezin zaie XXI. mendeko erronkei XIX. mendeko mitoei erantzun. •

Futbola, salbuespena?

Amagoia Mujika
Telleria

Futbolak jende asko «tximinotu» egiten duela ikusia dut aspalditik; ohikoa da jenderik kabalenak bere onetik aterata ikustea futbolari begira. Ez naiz ari pasioaz edo talde batekiko maitasunaz. Horiei ez diet txarrik ikusten. Pasio edo maitasun hori kanporatzeko moduak gehiago kezkatzen nau, bereziki haurrengan futbolak sortzen duen lilura ikusita.

Hor aritzen gara guraso eta hezitzaileak «lata ematen», norbere izatea eta maitatzeko moduak errespetatu behar direla esanez. Zenbat azalpen patxadatsu, zenbat hausnarketa, zenbat eta zenbat. Eta, gero, edozein asteburutan edozein futbol zelaitan, «...hijo puta, maricón, tu madre se caso por dinero». Eta segi.

Haurrei esaten diegu gure azalaren koloreak ez gaituela hobeak edo okerragoak egiten, denak garela desberdinak eta eskerrak, aniztasuna aberastasuna dela. Arrazismoa gaitz larria dela esaten diegu eta gero, futbola tartean denean, «puto negro vete a tu casa».

Matxismoarentzat ere zelai oparoak dira. Emakume jokalariek eta epaileek eraso sexista larriak sufritzen dituzte futbolaren beroaz sututako gizonezkoen aldetik. «Vete a fregar»

Ahoa harro zabaltzen dugu Euskal Herriaz ari garela, zazpi herrialde garela, herri bat, hizkuntza bat... eta gero zer eta askorentzat etxe ondoko taldeak, alboko probintziakoak, etsaietan etsaienak dira, nazkaz eta amorruz.

Giro horretan euskarak duen tokia ere hausnartzekoa da, euskarak «pasio» horrentzat hitzik ez balu bezala.

Zer nahi duzue esatea, nik ez dut ezer ulertzen eta aspaldi utzi nion haur izateari. Pentsatzen dut kontraesan horiekin haur batzuei buruan sortzen zaien katramila ez dela makala izango. Okerrena da korapilo horiek futbolaren testuinguruan gertatzen direla, dena pasio, oihu, gozamen eta estuasun den olatu ikaragarri horretan. Eta giro horretan ikasten direnak barru-barruraino sartzen dira, belaunaldiz belaunaldi transmititu. Futbolak ezin du salbuespena izan. Jendarte hobeagoa eraiki behar badugu, zelai horietan ere serio jokatu behar da. •